

HERRIKO EDUKIONTZIEN KOKALEKUA AZTERTZEN



SEKUENTZIA DIDAKTIKOA
LEHEN HEZKUNTZAKO 3. Zikloa

J. Ignacio Hormaetxea

2011ko ekainean berrikusia

HERRIKO EDUKIONTZIEN KOKALEKUA AZTERTZEN

Sekuentziak arlo hauek hartzen ditu barnean: Hizkuntzak, Ingurunea, Adierazpen artistikoa, Matematika

Gaia: Herriko edukiontzien kokalekua aztertu, kokalekuei buruzko argudio testua idatzi eta alkateari eskutitza bidali.

Testu motak: galdetegia, argudio testua, eskutitz formala

Maila: LH-ko 3. zikloa

Saio kopurua: 9

Proposamenaren testuingurua

Herriko edukiontzien kokalekua aztertzen izeneko sekuentzia hau Hondakinak eta zarama gaiaren atal bat baino ez da. Sekuentzia honetan, ikasleek eskola-jarduera batzuk burutuko dituzte, zabor motak, zaborra egoki kudeatzearen garrantzia, birziklatzea, energia eta abar aztertuta.

Edukiontzi motak eta edukiontzi bakoitzak zein produktu hartu behar duen behin zehaztuta, herriko edukiontzi kopurua eta kokalekua ere ikertuko dute. Bildutako datuekin, herriko edukiontzien erabilera hobetzeko proposamena egingo dute, eta, gero, eskutitza idatziko diote alkateari proposamen hori helarazteko.

Herriko edukiontzi kopurua eta kokalekua zehazteko, herriko mapa erraldoi bat egingo dute, eta, gero, gelan zabalduko dute; bertan agertuko dituzte edukiontzi guztiak, lehengoak zein proposatutakoak. Gero, familiakoen iritzia jasotzeko galdetegia prestatuko dute, eta jasotako erantzunak aztertuko dituzte. Azkenik, argudio testua idatziko dute proposamena jasotzeko.

Lana taldeka burutuko dute. Ikasleek zikloka lan egiten dute, eta, beraz, maila batzuetako ikasleak bilduko dira talde bakoitzean. Zenbat eta anitzago izan taldea, orduan eta aberatsago emaitza.

Oinarrizko gaitasun hauek landuko dira:

- Ikasten ikasteko gaitasuna (3, 4, 5, 6 eta 7 jardueretan)
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna (4, 5, 6, 7, 8 eta 9 jardueretan)
- Norberaren autonomiarako gaitasuna (1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 9 jardueretan)
- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna (1, 6, 7 eta 9 jardueretan)
- Kultura artistikorako gaitasuna (2, 3 eta 8 jardueretan)
- Matematikarako gaitasuna (2, 3, 6 eta 8 jardueretan)

Helburu didaktikoak

- Informazioa iturri askotatik lortzea
- Informazio anitza agertzea
- Gai jakin bati buruzko galdetegiak prestatzea
- Galdetegietako emaitzak aztertzea
- Talde-lanean aritzea
- Eztabaidatzeko trebetasunak garatzea
- Besteen beharrak kontuan hartzea
- Proporzio matematikoak era egokian erabiltzea
- Argudio testuak idaztea
- Eskola-lanetan estetika zaintzea
- Eskutitz formala idaztea

Edukiak

- Herriko mapa
- Proporzio matematikoak
- Galdetegia
- Argudio testuen ezaugarriak
- Eskutitz formalaren ezaugarriak
- Talde-lanarekiko jarrera ona
- Datuen erabilera
- Lan txukuna egiteko jarrera ona
- Eztabaidatzeko jarrera ona

Jardueren sekuentzia

a) Planifikatzea

- 1. jarduera. Lana aurkeztu. Taldeak osatu
- 2. jarduera. Mapak prestatu

b) Gauzatzea

- 3. jarduera. Ibilbidea. Edukiontziak mapetan agertu
- 4. jarduera. Egoera aztertzeke galdetegiak prestatu
- 5. jarduera. Galdetegietako erantzunak aztertu
- 6. eta 7. jarduerak. Lehengo kokalekuarentzako alternatiba bilatu

c) Erabiltzea

- 8. jarduera. Mapa berria burutu eta azaldu
- 9. jarduera. Alkatearentzako eskutitza idatzi

Ebaluazioa

Adierazleak

- Ea taldean ondo aritzen den
- Ea informazioa iturri askotatik lortzen duen
- Ea informazio nahikorik ematen duen
- Ea galdetegi ezaugarriak ezagutzen dituen
- Ea galdetegi egokiak egiten dituen
- Ea galdetegiak ondo aztertzen dituen
- Ea proportzio matematikoak ondo erabiltzen dituen
- Ea argudio testu egokiak burutzen dituen
- Ea eskutitz formalak idazten dituen
- Ea lanak txukun eta egoki aurkezten dituen
- Ea norberaren gaitasunak eta zailtasunak onartzen eta balioesten dituen

Tresnak

- *Jardueretan agertzen direnak*

AMAIERAKO HELBURUAK

Jarduerak amaitutakoan, gai izango gara honako helburu hauek burutzeko:

- Herriko mapa egiteko eta bertan datu jakin batzuk agertzeko
- Galdetegiak prestatzeko
- Galdetegietako erantzunak aztertzeko
- Gure alternatiba proposatzeko, herriko edukiontzien kokalekuari buruzko argudio testua idazteko
- Eskutitz formala idazteko

1. jarduera. Lana aurkeztu. Taldeak osatu

Proiektuan gauza asko ikasi dituzue zaramari eta hondakinei buruzkoak. Esaterako, zarama sailkatzen ikasi duzue, edukiontzi motak eta edukiontzi bakoitza nola erabili aztertuta. Orain, zarama eta hondakinak herrian nola bideratzen diren aztertzeko ordua heldu zaizue.

Herriko edukiontzien kopurua, mota eta kokalekua aztertzen ibiliko zarete egun batzuetan; gero, herriko mapan agertuko dituzue. Hori guztia egindakoan, edukiontzi kopurua eta kokalekua egokiak diren aztertuko duzue. Horretan laguntzeko, zuen familiakoen iritziak eta iradokizunak bilduko dituzue, eta, datuak bildutakoan, mapa berria egingo duzue datuokin. Azkenik, txosten bat idatziko duzue iritziak, iradokizunak eta mapak jasotzeko.

Txosten horretako iradokizunak bideratze aldera, herriko alkateari — herriko agintaririk gorena— eskutitza idatziko diozue, eta erantzuteko eskatuko. Eskutitzarekin batera txostena ere bidaliko diozue. Hori izango da zuen azken lana.

Lana, taldeka egingo duzue; beraz, iritsi da taldeak osatzeko unea. Taldeak osatzeko, kontuan hartuko dituzue betiko irizpideak: talde bakoitzean, 5. eta 6. mailako lagunak; neskak eta mutilak, beste proiekturen batean taldekide ez direnak.

Taldeak osatu ondoren, lana prestatzen hasiko zarete.

2. jarduera. Mapak prestatu

Talde bakoitzak herriko mapa bana dauka. Mapa edukiontzien kokalekua adierazteko erabiliko du taldeak, eta aldaketak ere bertan agertu beharko ditu.

Ondo aztertu behar duzue mapa, zeuen burua bertan ondo kokatzeko. Horretarako, erreferentzia egokiak har itzazue eta, batez ere, eskala kontuan hartu. Eskala, dakizuenez, proportzio matematikoa baino ez da. Hori jakinda, arazorik gabe erabiliko duzue.

Baina hori ez da dena izango. Taldeen mapak eta opakoen proiektorea erabilita, gelan zabaltzeko mapa handia egingo duzue. Gero, mapa txikien eta handien arteko proportzioa aztertuko duzue, zeuen mapetako oharrak mapa handira ondo aldatzeko.

Zehatza eta txukuna egin behar duzue mapa handia, jarduera amaitu ondoren, eskolako sarreran zabalduko baita, eta kopia txikiago bat alkateari bidaliko baitiozue.



3. jarduera. Ibilbidea

Gaur da herrian barrena ibilbidea egiteko eguna. Talde bakoitzak herriko edukiontziak agertu behar ditu bere mapan. Zein edukiontzi mota den agertzea ez ahaztu!

Mapako beheko aldean, irudien esanahia ere agertu behar duzue.

Mapa egokiak diren aztertzeko, erabili honako taula hau:

	BAI	EZ
Toki guztiak zehatz agertzen dira		
Eskalak (neurriak) ondo erabili dira		
Kolore bakoitzak esanahi bana dauka		
Letra erraz irakurtzen da		
Maparen azpialdean legenda (azalpena) agertzen da		

4. jarduera. Galdetegiak prestatu

Orain, nahiak eta beharrekin alderatuko duzue errealitatea. Dagoeneko, edukiontzi motak eta kokalekuak zein diren badakizue. Baina, agian, hori ez da informazio nahikoa edota egokia izango. Beharbada, edukiontzi gehiago beharko da, edo kokalekua aldatu beharko da...

Egoera hobeto aztertzeko, herriko jendearen iritzia ezagutzen saiatuko zarete. Horretarako, galdetegiak –iritziak zehatz aztertzeko eta erantzunak erraz sailkatzeko moduko galdetegiak– prestatuko duzue.

Galdetegiak taldeka prestatuko dituzue, baina, horretan hasi baino lehen, komeni da irizpideak denon artean zehaztea. Horretarako, gogoan izango duzue galdetegiaren helburua: gai honi buruzko herriko jendearen iritzia zein den jakitea, hau da, jendearen iritzien argazkia egitea, eta argazki hori ahalik eta zehatzen egiten saiatzea. Horretarako, galdera esanguratsuak prestatuko dituzue.

Irizpideak zehaztu ondoren, talde bakoitzak galdetegi bana prestatuko du; gero, denon artean behin betiko galdetegi osatuko duzue.

Azkenik, kopiak atera ondoren, galdetegiak banatuko dituzue herriko hainbat auzotan jendeak zer pentsatzen duen jakiteko.



5. jarduera. Galdetegietako erantzunak aztertu

Galdetegiak egin ondoren, jasotako erantzunak aztertu egin behar dituzue. Hori lana! Erantzun batzuen kasuan ez da zaila izango, sarrera bikoitzeko taulak erabiliko baitituzue. Baina beste batzuetan, kokaleku berrien proposamenetan adibidez, ezin izango duzue taula horiek erabili, aukera askotakoak baitira. Kasu horietan, maiztasunaren arabera sailkatu beharko dituzue erantzunak, behin guztiak jasotakoan.

Eta erantzun guztiak bildu ondoren, proposatutako kokalekuak aztertuko dituzue. Zein den kokaleku egokia eta zein ez erabakitzeko unea iritsi da, gero proposamen alternatiboa egin behar baituzue. Kokaleku bakoitza aztertzen laguntzeko, hona hemen taula:

Kokalekua:

Eskatutako edukiontzi mota(k):

.....

	BAI	EZ
Jende ugari eskatu du?		
Ba al dago horrelako edukiontzirik hurbilean?		
Ba al dago etxe askorik hurbilean?		
Ba al dago taberna, denda... askorik hurbilean?		
Kokalekua eroso eta arrisku gabekoa da?		

6. eta 7. jarduerak. Alternatiba bilatu

Jasotako erantzunak aztertu ondoren, argi ikusiko duzue edukiontzi batzuen kokalekua egokia dela, baina beste batzuen ez. Kokalekua egokia ez dela esateko, hainbat arrazoi egon litezke. Esaterako, edukiontziak traba egiten duela, etxebizitzatik urrun dagoela, mota bereko edukiontzi bi daudela edo baten bat falta dela..., edukiontzi nahikorik ez dagoela...

Datu horiek guztiak bildutakoan, txukundu eta antolatu behar dituzue alternatiba bat proposatzeko. Eta zuek alternatiba egitean, arrazoiak argi adieraztea eta zerrendatzea ezinbestekoa dela ikusiko duzue. Horixe da, bada, argudio testua burutzea.

Argudio testua burutzean, oreka ere beharrezkoa duzue: errealistak izan behar duzue, baina baita handinahiak ere.

Argudio testua idazten laguntzeko, hona hemen haren ezaugarri nagusienak:

Nork bere tesia edo iritzia defendatzeko –eta beste batena edo batzuenak baztertzeko– idazten den testua da argudio testua. Esaterako, iritzi artikulua, proposamenak... Argudio testuaren ezaugarri nagusia subjektibotasuna da; haren tresnak, berriz, argudioak, hots, egilearen iritzia indartzeko arrazoiak.

Hiru atal nagusi dituzte argudio testuak; hona hemen atalok:

SARRERA: eztabaida aurkezteko atala da. Batzuetan defendatu nahi den tesia ere aipatu egiten da. Atal honek 1. paragrafoa hartzen du, eta testuko atalik laburrena da ondorioa paragrafoarekin batera.

GARAPENA: argudio testuaren muina da atal hau. Bertan biltzen dira egilearen hipotesiak, jarrerak..., ideiak defendatzeko erabili beharreko arrazoi guztiak, alegia. Baina, kontuz!, argudioak antolatzeko, mailakatze (hierarkia) bat ezarri behar da, eta gero, argudio bakoitzeko paragrafo bana – ideia bat = paragrafo bat– idatzi behar da.

KONKLUSIOA EDO ONDORIOA: argudio testuaren azkeneko paragrafoa hartzen du atal honek. Funtsean, bi helburu ditu: batetik, testuan zehar garatutako ideia nagusia(k) laburbiltzea, eta, bestetik, ondorio batzuk ateratzea.

Argudio testua ondo garatzeko, antolatzaileak erabili behar dituzue. Hona hemen zerrenda bat:

ANTOLATZAILEEN ZERRENDA		
Hasiera emateko Hasteko, Lehenengo eta behin,	Argudioa garatzeko (Horren) ondorioz, Horren haritik,	Bukaerakoak eta ondorioak emateko Amaitzeko, / Bukatzeko, Aurreko guztia laburbiltzeko

<p>Ezer baino lehen, Lehen-lehenik, Sarrera gisa esango dugu...</p>	<p>Era berean, Horren ostean, Hori (ikus) eta gero, dugu...</p>	<p>Ondorio gisa, Azkenik, zera: ... Laburbiltzeko, Horrenbestez, hona hemen zenbait ondorio: 1...2...3...</p>
<p>Ordena ezartzeko Alde batetik, ... Bestetik, ... Ildo beretik, Lehenik, ... /bigarrenik, ... (Arestian) esan bezala, (Gorago) esan bezala, Lehenengo hariari jarraiki,</p>	<p>Arrazoitzeko Bait-... -(e)lako -(e)la eta -t(z)eagatik Horregatik Izan ere, Hori dela eta,</p>	<p>Kontrakotasuna adierazeko Baina Dena dela, / Dena den, Hala (eta guztiz) ere, Hori(ek) gorabehera, ..., ordea, ..., berriz, ..., aldiz,</p>
<p>Ideiak aurkezteko ...-(a)ri dagokionez, ... dela eta, komeni da esatea... Oro har,</p>	<p>Indartzeko Aipatu bezala, Beste era batera esanda, Zehatzago esanda, Hobeto esanda, Are gehiago, Gainera,</p>	<p>Ideia berriak txertatzeko Ez hori bakarrik, Bestalde / Beste aldetik Baita ... ere Baina, bestetik, ... ere bai (Horrez) gain,</p>
<p>Adibideak jartzeko Adibidez, Esate baterako, Hau da, Ikus, adibidez, ...(a)ren kasua: ... Kasu (bat aipatzeko...) Hori erakusteko, aipa dezagun...</p>	<p>Onartzeko (ziurtatzeko) Ez dago dudarik, Seguruenik, Ziur asko Egia da ...-(e)la Dударik gabe, Zalantzarik gabe, Argi dago ...-(e)la Beharrezkoa da garbi uztea ..., noski/..., jakina,</p>	<p>Aipatzeko, iritziak emateko ...-(r)en arabera, Askoren/Batzuen iritiz,-(r)en ustez, Diotenez, Antza denez, Dirudienez, Badirudi ...-(e)la</p>

Argudio testua idazten laguntzeko, hona hemen taula :

Testuingurua
Gaia
Komunikazio egoera Zure iritzia da? edo talde batena? Iritzi baten aldekoa da? edo iritzi baten kontrakoa? Nori zuzendua? Non agertuko da testua?
Sarrera egiteko informazioa
Tesia
Tesiaren aldeko argudioak <ul style="list-style-type: none"> • 1. argudioa • 2. argudioa • 3. Argudioa • •
Konklusioa

Hori lana! Baina, jadanik testuak idatzita daukazue. Testuok ondo jorratu diren aztertzeko, hona hemen kontrol taula:

	BAI	EZ
Testuak hartzailea konbentzitzeko xede argia du		
Egitura argia du: sarrera (tesia), garapena (tesia argudiatzea) eta konklusioa		
Tesia argi dago		
Tesiaren aldeko argudioak zehatz eta argi garatu dira		
Testu antolatzaileak erabili dira		
Paragrafo bakoitzeko ideia bana garatu da		

8. jarduera. Mapa berria egin

6. eta 7. jardueretan azaldu dituzuen proposamen guztiak mapa batean agertu behar dituzue. Ikurrak erabiliko dituzue edukiontziak –lehengoak eta zuek proposatukoak– ondo bereizteko. Horrela, argi eta txukun geldituko da mapa.

Eta mapa horretan oso argi agertuko duzue zuen proposamena?

Mapa berri hori ebaluatzeko, mapa egokiak diren aztertzeke taula

–3. jarduerakoa– berriro erabiliko duzue.

9. jarduera. Alkatearentzako eskutitza idatzi

Zuen ideiak, zuen proposamenak eta galdetegiara bildutako herritarren iradokizunak luze eta zabal argudiatutakoan, mapa batean agertuko dituzue; gero, proposamena jasotzeko txosten bat idatziko duzue. Eta bukatzeko, txosten hori herriko alkateari –zuen proposamena bidera lezakeenari, hain zuzen ere– bidaliko diozue.

Horretarako, eskutitz formala –ez lagunartekoa– idatziko diozue alkateari. Baina idazten hasi aurretik, eskutitz formalaren ezaugarriak –agurra, formala; hizkera, egokia; adierazteko manera, argia; ordena, logikoa; eskaera, amaieran adierazia– kontuan hartzea komeni da. Eskutitza idazteko, talde guztien ekarriak kontuan hartuko dituzue; gero, alkateari bidaliko diozue, mapa eta txostenarekin batera. Ea kasu egiten duen!

